

## Euskaltzaindiaren finantzaketa

■ Euskaltzaindiak aste honetako aktualitatean toki berezia bete du. Dirulaguntzak, kudeaketa, subentzioen murrizketa eta beste hainbat

mutur dituen gai horretaz ikuspegi ugari daude. Gai hau jorrazteko eskatu diegu Alfontso Irigoien eta Paulo Agirrebaltzategiri.

## 'Pro khoras patridos'

**EUSKAL** Herriak triste egoiteko arrazoirik ez du falta. Hau erraiteko ez dugu demostrazioen beharrik, begien bistakoa baita. Baina, hala-ere, asko, aginte edo nolabaiteko itxura duen zerbaitei hartzeagatik, ipurloka agertzen da dramatikoki nor bere nortea galdurik, bereziki euskal mundu emergente berrian mugitzen baldin bada. Bestelako direnak, ordea, ostrazimora bidaltzen dira supituki, eta han bizi dira justuen linboan inermes. Jendearenganako errespeturik eza nabarmen ageri da, eta nor bere potroak urre gorritzakoak bailira bezala kontenplatu daroaz, eta maiz aluminosizko petral hutsak besterik ez dirateke. Arrokeriarik eta hantusterik ez zaigu falta, ez horixe! Arrazoi horregatik, jainko txikien izurriteak dakartzan ika-mika eta erran-merran ustel amaigabekoetarik libratzeko asmoz neure burua, poetikoki bederen, Jainko egiazko egin nuen Anbotoko haizuloetako palazioan Mariurririka Zeus-en sentiarreko jainkosa liluragarriarekin ezkondu nintzenez, eta harrezkeru lagun on jakituriazale direnak aurkitu ditut neure inguruan.

**LURREAN** bizi gara alabaina, eta, jakina, izurritek ez da falta, eta ezta Euskal Akademia eta diruz hornitzen duten agintean artean sorturiko rafi-raferik ere. Horrezaz ere nik neure eritzia ditut, ez baita gauza sekretua Akademiaren jokabidearen azken urteotan nagusitzen joan den izpiritu erkin sektarismoz beterikoarekin oso kritiko agertzen naizela, neure lepoan jasaitzen baitut izpiritu zapaltzaile arbiuagari hori. Gogoan duke batek baino gehiagok behinola, 1990-XI-28an, 'Jean Haritschelharri epistola irekia', egin niola. Orduan argitaratu emaniko izkribu horrek ez du oraindik baliorik batera galdu, hark entzungor egin baitzuen olimpiakoki, nahiz eta demokrazia hitza ahoan txitean-pigean erabiltzen duenatarikoa den, *liberté, égalité, fraternité* lemapekoak baita, *liberté pour faire ce que je veux!!!*. Harrezkeru niri Euskaltzaindian ez zait inolako lanik argitaratzen, baldin gaztelaniaz izkribaturik ez badago, eta Haritschelhar bera da personalki hitzez agindua ematen diona argitaratzeko lanetan arduratzen denari, zeren halakorik ez baitu sina-

turik eman nahi, eta erran baleza halako eta halako batzordek hori erabaki duela. —Akademik ez baitu halakorik inoiz egin izan—, erantzunen nioke euskaltzainen beren eskubideen gainetik jokatzeko duela. Auditoria egin zenean zerbaitegatik egin zuen 'reino de Taifas' delakoaren aipua.

Hala-ere nik neure lanak euskaltzainen eta besteren artean xerokopiatan banatzen ditut, eta ene ikerketez baliatu nahi lukeenak ez dut uste inolako trabarik duenik. Edozein modutan ere, gero 'De re philologica linguarum aconicae' titulupeko liburuetan argitaratu emaiten ditut neure diruz argitaraturik, eta, izan-ere, bosgarren tomoa bidean da —laguntza

rondatez. Bakoitzak dakike zer pentsatu.

Euskal Akademiak Donostian 1993 urteko azaroaren 26an eginiko batzarrean eskabidea egin nuen gure Instituzioak publikoki adieraz lezan ez duela zer ikusirik Lur Entziklopedia eta Euseñor-en artean sorturiko eztabaidan, hau da, ez duela zer ikusirik ez batarekin eta ez bestearekin, nahiz-eta Lur-en Akademiako sekretarioa bera agertzen den kuspidean, Endrike Knörr, eta baita-ere, harekin batera, Beñat Oihartzabal, Pello Salaburu eta Ibon Sarasola, eta Haritschelharren erretratu bera ere haien erdi-erdian pabo real baten moduan dagoela agertu izan da edonongo propagandatan. Ez zen ezer egin, zeren Haritschelhar

eredua emaiten dutela. Erran beharrekoa da, alabaina, itzulpenak egin dituztenak ez direla propagandarako agertzen diren akademikoak, zuri diren zenbait 'negro' baizik, eta nahiz-eta begiratu bat eman dioten, eginikoaren struktura beti gelditzen da lanean, zuzenketak gora behera. Nori berea da zuzenbidea. Gehiago erranen nuke oraindik, Euskal Akademiako agiritan beretan euskararen aldetik hutsune larri zuzendu beharrekoak irakurri izan direla behin baino sarriagotan. Nola eman diezaiokete besteri eredurik oinarritutako hutsak bestek zuzendu behar dizkion batak? Gogora ekarri behar da, baita-ere, Leioako Unibertsitatean iaz eginiko jardunaldietan Pello Salaburuk jendartean erantzun zidana: «hemen ez gara zientzia egiten ari politika egiten ari gara». Eta norbaitek gero hori kontextua argiturik legundua nahi izan badu ere, Diluvio Unibersalaz geroztik Europar Unibertsitate-munduko batek erran izan duen phraserik retrograduena da.

Orotariko Euskal Hiztegiagaz zer erran? Hiztegi honekin gauza harrigarria gertatzen da: Hasierako parte bat Luis Michelena izenean agertu zen eta horrezaz ez dut ezer erraitekorik, ene aldetik behintzat, baina gainerako parte ere, hau da, hil ondoan izkribaturikoa, izen bera daramala agertzen da, hura hil zenean egin gabe bazegoen ere, eta hil ondoan ere oraindik autore-eskubide berriak sortzen dira, ez dakit noiz arte, 2010 urterate? Dirudienez Ibon Sarasolak Mitxelena beste mundura telefonoz deitzen dio izkribatu baino lehen bere eritzia jakiteko, zeren Hiztegi hori ez baita Euskaltzaindiarena, hark administratzailearen papera besterik betetzen ez baitu, diruak leku batetik bestera pasatzen dituela. Gehiagok eskatzea al da horren birplanteamendu Oñatik sinadura-egunean egiteko hauturik izan ez genduen behar den moduan egitea?

Axola handiko gauza gehiago ere badut erraiteko, baina eskatu didaten artikulua honetarako ez didate leku gehiago eskaini.

ALFONSO IRIGOIEN  
EUSKALTZAINA

**DIRUDIENEZ IBON SARASOLAK MITXELENARI BESTE MUNDURA TELEFONAZ DEITZEN DIO IZKIRIBATU BAINO LEHEN BERE IRTIZIA JAKITEKO, ZEREN OROTARIKO HIZTEGI HORI EZ BAITA EUSKALTZAINDIARENA, HARK ADMINISTRATZAILEAREN PAPER A BESTERIK BETETZEN EZ BAITU.**

tipiren bat izan dut inoiz, baina ez beti, eta ez uste izan aberasteko bidean abiatu naizenik, alderantziz baizik—.

**EZIN** gelditi naiteke erran gabe 'Euskera' errebistaren gerria ondoko bigarren aldia miseria gorriko giro negargarrian nik neuk ipini nuela martxan, banan-banan arpedunak eginik, eta harrezkeru hainbat eta hainbat urtetan izan nintzela zuzendari, eta Haritschelharri berari ere neure bekokiko izerdiz musutruk argitaratu niola bere thesiaren erasineko liburua. Eta orain nik neuk bersorturiko aldizkarian lekua ukatzen zait. Eta, ez hori bakarrik, behin hitzaurte bat ere eskatu zitzaidan Angel Maria Elortegiren 'Pasaia-ko toponimia' titulupeko libururako, eta batera gabe agertu zen zensore epistemofobo orain sekretario denaren bo-

euskaltzainburuak Ibon Sarasola eta bera besteenean presentazioan izan-berri zirela erran baitzuen eta horrela, orain argi ikusten denez, gauzak konpondu gabe gelditu ziren. Orduan nion: «Gogora ekarri behar da Euseñor siglen pean batez-ere Uzei eta Elhuyar daudela, hain-zuzen-ere Euskaltzaindiko hiztegi tipiarenean lanetan nolabaiteko akordio baten pean laguntzazko lanean ari baitira, Euskaltzaindiko batzarretan entzuten ditudan kontuak memoriano ondo gorderik baldin baditut, eta gainera uste dut Orotariko Euskal Hiztegiaren supporte informatiko osoa ere pasatu behar zitzaizela, eta agian honezkeru badukete, geroztik ezer entzun ez baitut».

**EZ DA** ahantzi behar Lur-ekoak erraiten ari direla Entziklopediaren bidez hizkuntza-

## Euskaltzaindia eta besteak

**EUSKALTZAINDIAK** 93 milioi pezeta hartuko ditu Eusko Jaurilaritzatik, aurrekoen proiektuaren arabera: iaz bezala. 1991n 99,5 milioi hartu zituen ohiko gastuetarako. Tartean diru gehiago ere hartu izan du, baina inbertsio berezitarako. Beraz, 5 urtetan % 6,5 jaitsi du Jaurilaritzak Euskaltzaindiarentzako subentzio arrunta, kopuru absolututan; bost urteetako KPiren (Kontsumo-Prezioen Indizea) igoera kontuan hartuz gero (% 20tik gorra), atera kontuak.

Zorionez, Eusko Jaurilaritzaren dirulaguntza hori handituko dela uste dugu. Eusko Legebiltzarrerara zenbait alderdik eramanak dituen emendakinak onartzu. Gauza bera eskatu zien EKBk orain dela egun gutxi alderdi politikoei, prentsaurrekoan eta gero gutun baten bidez, euskalgintzako bestelako elkarte eta erakunde sozialei buruz. Izan ere, Jaurilaritzako Kultura Sailak 1991-1995 bitartean % 19,11 jaitsi baitu euskararen sustapenerako dirulaguntzak; eta elkarte eta erakunde sozialei emandako subentzioak % 14,82 jaitsi baitu KPiren igoera kontuan izanik noski). Borobil dezagun: bost urtetan % 15 gutxiago hartzen dute euskalgintza eta euskal kulturagintzaren alorreko elkarte eta erakunde sozialek dirulaguntzetan Kultura Sailetik (HPIN barne). Horrekin lotu behar dira aurtengoan Nafarroan ere izan diren jaitsierak.

**PANORAMA** oso larri agertzen du guzti horrek, euskararen berreskurapenaren aurrerabidean urrats berri, tinko eta ausarta egin beharrekoa den une honetan, gogoan badugu gainera bost urteon buruan oraindik gehiago jaitsi dela Sail beraren euskararen sustapenerako aurrekontu orokorra: % 19,11.

Euskaltzaindiaz ari gara oraingoan. Burrunba handia atera du erakundearen garrasiaz; jasaten ari den 'porrot' finantzario larria salatu du. Aurrean daukat orain dela egun gutxi zabaldu duen agiria, erakundearen egoera finantzario eskasaren arrazoiak ematen eta hori konpontzeko proposamenak aurertzen dituen. 4. puntuok esaldi bat gertatu zait deigarria: «Oroitarazi nahi du, halaber, erakunde honek egiten duen lana ezin dela paretatu, ez bere historiaz, ez bere prestijioaz, ez eta hizkuntzaren batasunerako eta euskal gizartearen kohesiorako izan duen eginkizunaz, han-hemenka azken urteotan sortu izan diren zenbait elkarterekin». Nik ez diot ukatuko ez beraren historia, ez prestijioa eta ez eginkizun soziala; are gutxiago euskararen batasunerako bete duen eginkizuna, hori bideratzeko modua batzutan kritikatzeko bada ere. Bete defenditu izan dut Euskaltzaindiaren eginkizun akademiko guztiz bezala eta herritar guztioi, eta bereziki euskalgintzan ari garenek, horri zor dizkiogun begirunea eta menpekotasuna euskararen

normalkuntzari eta modernizazioari dago-kienez.

**HALA ERE**, arrisksutsua da euskalgintzan lanean diharduten bestelako erakundeekin konparazioak egiten hastea. 75 urteak bete berriak ditu Euskaltzaindiak; eta esan ere esan daiteke, bera izan dela nolabait euskalgintzako erakunde matriza (ama?), eta bestelako hainbat talde, elkarte eta erakunde moderno horren itzalpean edota horri aitorpena eginez sortu direla, euskalgintzan eta euskal kulturagintzan iharduteko.

Ezaguna denez, bi modutara dago eratu Europa herrialdeetan hizkuntzaren inguruko autoritate 'akademikoa': Hizkuntza Akademia ofizial-instituzional (Frantsesarena, Espainiararena, Euskararena), batetik; eta, legezko onarpenik izan gabe, beren Hiztegi-gintzako lanaren bidez bereziki, hizkuntzaren normalkuntzaren alorrean benetako aitortzen duen zabal eta gidaritzat intelektuala lortu duten kultur-erakundeak (Duden, Alemanierentzat; Oxford, Ingelesarentzat; Academia della Crusca, Italiarentzat). Euskararen normalkuntza-prozesu oso bereziagatik, Euskaltzaindiaren eta euskal gizartearen —eta euskalgintzako muduaren— arteko harremana ere berezia izan da. Zorionez zabal da gaur egun euskalgintza eta euskal kulturagintzako mugimendu soziala eta uga-

riak dira horren barruan lanean diharduten enpresa, elkarte eta taldeak; eginkizun guztiz apartekoa eta leialtasuna aitortzen diote gehien-gehienek Euskaltzaindiari; aldi berean lan propioa, guztiz beharrekoa, betez beren autonomian.

**EUSKALGINTZAREN** mugimenduari eta horren eraketari begira Euskaltzaindiari dago-ki: a) Horren bateragune nagusietakoa izatea, bere itzalez eta jokabidez; b) Alor horretan beren egitekoa betetzen duten talde, elkarte eta erakunde guztien lekua defenditzea eta horiek beharrezkoak dituzten dirulaguntzak eskatzea. Horregatik ez da ulergarria gertatzen aipaturiko agiritan Euskaltzaindiari 'zor' zaiona eta euskalgintzako bestelako erakundeak hartzen duten subentzioa beren konkurrentzia mingarritzat hartzea, 3. puntuan zera dionean: «... batez ere Euskaltzaindiak argi ikusi baitu dirua erraz aurkitu izan dela hizkuntzaren inguruko beste zenbait proiektutarako».

Euskaltzaindiaren batera euskalgintzako talde, elkarte eta erakundeentzako dirulaguntzak berrikusi behar dira, azken urteetako maldan beharkeko itzula bidez auzidatzen. Horrela bakarrik, eman ahal izango du aurreratu-urrats tinkoa euskararen normalkuntzak.

PAULO AGIRREBALTZATEGI  
EKB-KO LEHENDAKARIA